

V  
e

M - 13407

R - 6714

A.T.U.  
5162

\*

CRISTAUAREN  
DOTRIÑA  
**AITA ASTETEC ERDARAZ**  
ARGUITARA EMANA,

ETA.

GUIPUZCOACO ABCIPRESTAZGO NAGUSICO APAI-CEN BATZARRE EDO CONGREGACIOAC 1855-GARREN URTEAN ERABAQUI ZUAN BECELA, BERRIRO EUSKARARA ITZULIA.



VITORIAN:  
MATEO SANZ-EN MOLDIZTEGUIAN.  
1867-garren URTEAN.

# 中国古典文学名著 《金瓶梅》

古典文学名著

力作，中国古典文学名著。《金瓶梅》是元末明初人兰陵笑笑生所著的一部长篇世情小说，也是我国第一部文人独立创作的长篇白话章回体小说。它描写了封建社会中一个大官僚家庭的生活，揭露了封建社会的黑暗和腐朽，揭示了人性的丑恶和虚伪。全书共一百回，由三部分组成：一、潘金莲与西门庆的私情；二、李瓶儿与武大郎的婚姻；三、陈经济与孟玉楼的恋情。通过这些人物的命运，反映了当时社会的种种矛盾和冲突。

“金瓶梅”三部曲

《金瓶梅》、《金瓶梅词话》、《金瓶梅图咏》

（明）兰陵笑笑生著

VITORIA 9 de Enero de 1867.

Por quanto de órden nuestra ha sido examinado el *Catecismo* del P. Astete, traducido al vascuence por una comision del Clero de Guipúzcoa; y siendo favorable y grandemente satisfactoria la censura que esta obra ha merecido, damos nuestra licencia para su impresion y publicacion; y mandamos que este nuestro decreto sea estampado en el primer fólio de cada uno de los ejemplares.=DIEGO MARIANO, *Obispo de Vitoria.*

Así lo decretó y firmó su Excelencia Ilustrísima, el Obispo mi Señor, de que certifico.=JUAN TORNERO, *Secretario.*

---

Esta nueva traducción  
es propiedad.

---

## ITZAUURREA.

---

Iracurle euscalduna: Dotriñaco liburucho au iriquitzean, ez dezazula uste ez dan gauzaren bat. Zuc aurtasunetik icasi cenduan dotriña bera da. Lengo liburuchoan erdaraz ceuden itz asco euscaraz ipintzea, eta an demborarequin guertatu diran ulseguiteac zuzentzea, orra certara datorren zure oneraco esqueintzen zatzun lan berri au. Artzazu, bada, liburucho au gogo onez: icasi ezazu ongi: egiztu contuz berac esaten duana, eta zaude seguru era orretan irichico dezula mundu onetako eta besteko zoriona.



Jesu-Cristo ill zan gugatik,  
Justua pecatariagatik.

Nere Jesus ona Zu  
Gurutze orretan,  
Nigatic illa neque  
Izugarrieta:  
?Eta ni beti nere

Griñā gaiztoetan?....  
¿Nola ez-da negarric  
Nere beguietan?  
¿Nola ez naiz ni illitzen  
Damuz bat batetan?



Guzutze santuaren † señaleagatik,  
gure † etsaietatic libra-gaitzatzu, † gu-  
re Jauna eta Jaungoicoa. Aitaren, eta  
Semearen, † eta Espiritu Santuaren ice-  
nean. Amen.

### CREDOA.

¶ Sinisten det Jaungoico, Aita guciz po-  
deroso, Ceruaren eta lurraren Criado-  
reagan. Eta aren Seme bacar Jesu-  
Cristo gure Jaunagan: ceña sortua izan  
zan Espiritu Santuaren obraz eta gra-  
ciaz, jayo zan Maria Virginagandie, pa-  
decilu zuan Poncio Pilatosen mendeian,  
izan zan gurutziltzatua, illa, eta enter-  
ratua: jachi zan infernuetara, piztu zan  
illen artetik irugarren egunean: igo zan  
Ceruetara, dago jariric Jaungoico Aita  
guciz poderosearen alde escuitik: andic

etorrero da bieiac eta illac juzgatzen. Sinisten det Espiritu Santuagan: Eliza Santa Catolica: Santuen Comunioa: peccatuen barcacioa: araguiaren piztutzea: bicitza beticoa. Amen.

## ARTICULU FEDECOAC

DIRA AMALAU.

Lenengo zazpiac dagozquiero Jaungoicotasunari, eta beste zazpiac gure Jaun Jesu-Cristo, Jaungoico eta guizoneguiazcoaren Guizatasun santuari.

*Jaungoicotasunari dagozquieronac dira oec.*

Lenengoa, sinistea Jaungoico guciz poderoso bacar bategan.

Bigarrena, sinistea dala Aita.

Irugarrena, sinistea dala Semea.

Laugarrena, sinistea dala Espiritu Santua.

Bostgarrena, sinistea dala Criadorea.

Seigarrena, sinistea dala Salvatzallea.  
Zazpigarrena, sinistea dala Gloria-ema-  
llea.

*Guizatasun Santuari dagozquier-  
nac dira oec.*

Lenengoa, sinistea Jesu-Cristo gure Jau-  
na, guizona danez, sortua izan zala  
Espiritu Santuaren obraz eta graciaz.  
Bigarrena, sinistea jayo zala Santa Ma-  
ria Virgiñagandie, zalaric au Virgiña  
aurguitea baño len, aurguitean eta  
aurguitea ezquero.

Irugarrena, sinistea artu cíntula eriolza  
eta pasioa gu pecatarioc salvatzea-  
gatik.

Laugarrena, sinistea jachi zala infernue-  
tara, eta aren etorrera santuaren zai-  
ceuden guraso santuen animac alera  
cíntula.

Bostgarrena, sinistea piztu zala illen ar-  
tetic irugarren egunean.

Seigarrena, sinistea igo zala Cernetara,  
eta dagoala jarriric Jaungoico Aita  
guciz poderosoaren alde escuitic.

Zazpigarrena, sinistea etorrico dala biciac eta illac juzgatzen; au da: onai ematera gloria, ceren aren Mandomentu santuac gorde cituen, eta gaiztoai pena beticoa, ceren gorde etzituen.

### AITA GUREA.

Aita gurea Ceruelan zaudena, santificatua izan bedi zure icena: betor gugana zure erreinua: egun bedi zure borondatea nola Ceruan, ala lurrean. Egun iguzu gure egnoroco ogua: eta barcaeguizquigulu gure zorrac, gure zordunai barcatzen diegun becela: eta ezgaitzatzula utzi tentacioan erorten: baicie libra-gaitzatzu gaitzetic. Amen.

### AVE MARIA.

Agur Maria, graciaz betea, Jauna da zurequin, bedeineatua cera zu andre gucien artean, eta bedeineatua da zure sableco frutua Jesus. Santa Maria, Jaungoikoaren Ama, erregulu ezazu gu pe-

catariocgatic orain eta gure eriotzaco  
orduan. Amen. (\*)

### SALVEA.

Agur Erreguiña, misericordiazco Ama,  
bicitza, gozotasun eta gure esperanza,  
agur. Zure deyez gaude Evaren hume  
desterraluoc. Zugana gaude suspirioz,  
sentimenluz eta negarrez, negarrezco  
lecu onetan. Ea bada, bitarteko gurea,  
itzuli itzatzu gugana zure begui miseri-  
cordiazco oriec, eta destierro onen on-  
doren eracutsi eguiguzn Jesus, zure sa-  
beleko frutu bedeincatua. ¡O biotz be-  
rraal! ¡O erruquitsua! ¡O Maria Virgiña  
gozoa! Erregutu ezazu gugatic, Jaungoi-

---

(\*) Gloria, Patri, et Filio, et Spiritui  
Sancto. Sicut erat in principio, et nunc, et  
semper, et in saecula saeculorum. Amen.  
Au ez dacar Dotriñaco liburuchoa; hañia  
esan oi da, eta latiñ orree esan nai du: Glo-  
ria Aitari, eta Semeari, eta Espiritu San-  
tuari. Asieran zan becela, eta oraifi eta beti,  
eta seculati secula. Amen.

coaren Ama Santa, Cristoren promesen  
diña egun gaitecen.

**JAUNGOICOAREN LEGUECO  
AGUINTEAC EDO MANDAMENTUAC DIRA AMAR.**

Lenengo irurac dagozquiero Jaungoicoaren onrari, eta beste zazpiac projiemoaren onari.

Lenengoa, Jaungoicoa amatzea gauza gucien gañean.

Bigarrena, aren icen santiuaz juramentu alperric ez eguitea.

Irugarrena, jaiegunaec santificatzea.

Laugarrena, Aita eta Ama onratzea.

Bostgarrena, inor ez illtzea.

Seigarrena, araguizcoa pecaturic ez eguttea.

Zazpigarrena, ez oslutzea.

Zortzigarrena, testimonio falsoric ez jasolzea, eta guezurrie ez esatea.

Bederatzigarrena, zure projimoaren emazleric ez desealzea.

Amargarrena, hesteren ondasunic ez guticiatzea.

Amar Mandamentu ooc sartzen dira bitan: Jaungoicoa servitzean, eta amatzean gauza gucien gañean, eta zure projimoa zure burua becela. Amen.

## CRISTAU DOTRIÑAREN

DECLARACIOA EDO AZALDURA GALDE ETA  
ERANZUTEEN BIDEZ.

Galdetzen det: ¿Cristaua cera?  
Eranzuten det: Bai, Jaungoicoaren grazia.

G. Cristauaren icen ori, norgandie izan cenduan?

E. Cristo gure Jaunagandic.

G. Cer esan nai du Cristauac?

E. Cristoren guizona.

G. Cer aditzen dezu Cristoren guizonaz?

E. Jesu-Cristoren fedea duan guizona, ceña profesatu zuan bataioan, eta dagoana aguinduric aren servicio satura.

G. Cein da Cristauaren señaldea?

E. Gurutze santua.

- G. Cergatic?
- E. Cergatic dan Cristo gurutziltzatuaren figura edo iduria, bada gurulzean erredimitu guinduan.
- G. Gembat modulan eguiten du Cristauac señale au?
- E. Bitan.
- G. Cein dira?
- E. Ciñatzea eta santiguatzea.
- G. Cer gauza da ciñatzea?
- E. Eguitea iru gurutze escuico escuaren aurreneco beatzarequin: lenengoa becoquian; bigarrena aoan; irugarrena bularretan, itzeguiten dala Jaungoico gure Jaunarequin.
- G. Ea nola?
- E. Gurutze santuaren † señaleagatic, gure † etsaietatic libra-gaitzatzu, † gure Jauna eta Jaungoicoa.
- G. Cergatic ciñatzen cera becoquian?
- E. Jaungoicoac libra-gaitzan pensamendu gaizloetatic.
- G. Cergatic aoan?
- E. Jaungoicoac libra-gaitzan itz gaiztoetatic.

- G. Cergatic bularretan?
- E. Jaungoicoac libra-gaitzan obra eta  
deseo gaitzoetatic.
- G. Cer gauza da santignatzea?
- E. Eguitea gurutze bat escuico escuaren  
beatz biacquin, becoquitic bularreta-  
raño, eta sorbalda ezquerrecotic es-  
cuicoraño, deitzen zayola Trinidade  
edo Irutasun guciz Santuari.
- G. Ea nola?
- E. Aitaren, eta Semearen, † eta Espi-  
ritu Santuaren icenean. Amen.
- G. Noiz egnin bear dezu señale au?
- E. Obra onen bat asitzen degun gucian,  
edo arquitzen gueranean premia, ten-  
tacio, edo peligroren batean; batez-  
ere oetic jaiquitzean, echetic irtetean,  
Elizan sartzean, jateracoan eta lota-  
racoan.
- G. Cergatic orrembeste bider?
- E. Cergatic dembora eta lecu gucietan  
gure etsaiac erasotzen digüen, eta  
perseguilten gaituen.
- G. Cer etsai dira oriec?
- E. Demonioa, Mundua eta Araguia.

- G. Beraz badu gurulzeac virtutea etsai  
orien contra?
- E. Bai, Jauna.
- G. Nondic du gurulzeac virtute ori?
- E. Anche ventzitu eitzialaco Cristo et-  
sai oriec bere eriotzarequin.
- G. Gurutzea adoratzen dezunean, nola  
esaten dezu?
- E. Adoratzen eta bedeincatzen zaitugu,  
Cristo, cergalitc zure gurutze santuaz  
erredimitu cenduan mundua.

### CRISTAU-DOTRINAREN PARTICIOA EDO BERECIERA.

Cristaua nola ceran icusi degu Cristauaren icenetic, eta señaletic. Baña orain esan-zadazu:

- G. Cembañ gauza jaquin bear ditu Cristauac ezaguerara, edo uso arrazoizcora datorrenean?
- E. Lau gauza.
- G. Cein dira?
- E. Jaquitea cer sinistu bear duan, cer escatu bear duan, cer egun bear duan eta cer artu bear duan.

- G. Nola jaquingo du cer sinistu bear duan?
- E. Jaquiñarequin Credoia, edo Articulu fedecoac.
- G. Nola jaquingo du cer escaatu bear duan?
- E. Jaquiñarequin *Aita gurea*, eta Elizaren beste oracioac.
- G. Nola jaquingo du cer eguin bear duan?
- E. Jaquiñarequin Jaungoicoaren Legueco Mandamentuac, Eliza Ama Santarenac eta obra misericordiazcoac.
- G. Nola jaquingo du cer artu bear duan?
- E. Jaquiñarequin Eliza Ama Santaren Sacramentuac.

### CRISTAU-DOTRIÑAREN

LENENGO PARTEA, CEÑEAN AZALTZEN EDO DECLARATZEN DIRAN CREDOA ETA ARTICULU FEDECOAC.

- Lenengora gatocela, esazu: Norc esan zuan Credoia?
- E. Apostoluac.
- G. Certaco?

- E. Fede Santa guri adierazotzeco.  
G. Eta zuc certaco esaten dezu?  
E. Cristauoc degun Fede au aitortzeco.  
G. Cer gauza da Fedea?  
E. Icusi ez deguna sinistea.  
G. Icusi cenduan zuc Jesu-Cristo jayotzen?  
E. Ez, Jauna.  
G. Icusi cenduan illtzen edo Ceruelara igotzen?  
E. Ez, Jauna.  
G. Sinisten dezu?  
E. Bai, Jauna, sinisten det.  
G. Cergatic sinisten dezu?  
E. Cergatie Jaungoico gure Jaunac ala aguertu duan, eta Eliza Ama Santac onela eracusten digun.  
G. Cer gauza dira Crislauac becela dituzunac, eta sinisten dituzunac?  
E. Erromaco Eliza Santac dituanac eta sinisten dituanac.  
G. Cer gauza dira zuc eta arc dituzuenac, eta sinisten dituzuenac?  
E. Articulu fedecoac, batezere Credoan dauden becela.

- G. Cer gauza dira Articulu fedecoac?
- E. Dira Fedeco Misterioric andienac eta lenenac.
- G. Certaco dira Articulu fedecoac?
- E. Jaungoico gure Jaunaren eta Jesu-Cristo gure Erredentorearen ezagüiera banaró emateco.
- G. Nor da Jaungoico, gure Jauna?
- E. Da esan edo pensatu al-ditequeean gauzaric garayena eta miragarriena: Jaun bat caburic gabe ona, poderosa, jaquintsua, justua, gauza gucien asiera eta acabera.
- G. Trinidade edo Irutasun guciz santua nor da?
- E. Da Jaungoicoa bera, Aita, eta Semea, eta Espiritu Santua; iru Persona baná diranac, eta Jaungoico eguiazco bacar bat.
- G. Aita Jaungoicoa da?
- E. Bai, Jauna.
- G. Semea Jaungoicoa da?
- E. Bai, Jauna.
- G. Espiritu Santua Jaungoicoa da?
- E. Bai, Jauna.

G. Iru Jaungoico dira?

E. Ez, baicic Jaungoico eguiazco bacar bat.

G. Aita Semea da?

E. Ez, Jauna.

G. Espiritu Santua da Aita edo Semea?

E. Ez, Jauna.

G. Cergatic?

E. Cergatic Personac diran baná, Jaungoico eguiazco bacar bat bada ere.

G. Nola da Jaungoicoa guciz poderosoa?

E. Cergatic bere podere bacarrez egutien duan nai duan gucia.

G. Nola da Criadorea?

E. Cergatic ecerezetic eguin ciluan gauza guciae.

G. Nola da Salvatzallea?

E. Cergatic ematen duan gracia, eta barcatzen dituan pecatuac.

G. Nola da Jaungoicoa Gloria-emallea?

E. Cergatic ematen dion gloria aren gracion irauten duanari.

G. Jaungoicoac badu gorputzaren iduriric, edo figuraric guc becela?

- E. Jaungoicoa dan aldetic, ez; cergatic  
dan espiritu utsá; baña bai guizona  
dan aldetic (\*).
- G. Iru Persona Jaungoicozcoelatic, ceñ  
eguin zan Guizon?
- E. Bigarrena, cena dan Semea.
- G. Aita eguin zan Guizon?
- E. Ez, Jauna.
- G. Espiritu Santua, eguin zan Guizon?
- E. Ez, Jauna.
- G. Ceñ bada?
- E. Semea bacarric, ceñari Guizon egui  
nic deritza Jesu-Cristo.
- G. Beraz orrela, nor da Jesu-Cristo?
- E. Da Jaungoico biciaren Semea, Gui-

- 
- C) Eranzuera ori illuncho dago, eta ara  
emen nola aditu bear dan.
- G. Jaungoicoac badu gorputzaren iduriric  
edo figurarie guebecela?
- E. Ez; Jaungoicoa espiritu utsa da; eta ala  
ez du gorputzaren iduriric, ez figurarie.
- G. Jesu-Cristoc badu gorputzaren iduriric  
edo figurarie guebecela?
- E. Jaungoicoa dan aldetie, ez; cergatic dan  
espiritu utsa; baña bai guizona dan al  
detie.

- zon eguin zana gu erredimitzeagatic,  
eta guri nola bici eracusteagatic.
- G. Cer esan nai du Jesusec?
- E. Salvatzallea edo Libratzallea.
- G. Certatic salvatu, edo libratu guin-  
duan?
- E. Gure pecatutic eta demonioaren  
mendetic.
- G. Cer esan nai du Cristoc?
- E. Ungitua.
- G. Certzaz izan zan ungitua?
- E. Espiritu Santuaren graciaz eta doaiaz.
- G. Cristo gure Jauna nola izan zan sor-  
tua, eta jayo zan Virgiña zan Ama-  
gandic?
- E. Eguiten zuala Jaungoicoac obra mi-  
rariz bete bat.
- G. Aren Aina guero beti Virgiña bicitu  
zan?
- E. Bai, Jauna, beti beti.
- G. Cergatic nai izan zuan Cristo gure  
Jaunac ill gurutzean?
- E. Gu pecatutic, eta eriotzatic libra-  
tzeagatic.
- G. Cristo gure Jauna ill ezquero ja-

- chi zan infernu artzaz, cer aditzen  
dezu?
- E. Ez condenatuuen lecura, baicic lim-  
bora justuac ceudenera.
- G. Nola jachi zan?
- E. Anima Jaungoicolasunari unituric  
edo baturic.
- G. Eta aren gorputza nola guelditu zan?
- E. Jaungoicolasunarequin berarequin  
unituric.
- G. Nola piztu zan illen artelic irugarren  
egunean?
- E. Biurizen cirala alcargana aren gor-  
putz eta anima gloriosoa, inoiz ez  
gueyago illtzeo.
- G. Nola igo zan Ceruelara?
- E. Bere berezko virtutez.
- G. Cer da jarriric egotea Aila Jaungoi-  
coaren alde escuitic?
- E. Aitac aimbat gloria izatea Jaungoi-  
coa danez, eta Guizona danez, beste  
inore baño gueyago.
- G. Noiz etorrico da biciac eta illac juz-  
gatzena?
- E. Munduaren azquenean edo acaberan.

- G. Eta ill guciac piztu bearrac dira orduan?
- E. Bai, Jauna, izan cituen gorputzazquin eta animacquin beracquin.
- G. Cer sinisten dezu esaten dezunean sinisten det Santuen Comunioa?
- E. Cristau fielac duela parte besteen animaco ondasunetan, gorputz bat beraren parteac becela, ceña dan Eliza.
- G. Ceñ da Eliza?
- E. Da Cristau fielen batasuna, edo Congregacioa, ceñaren burua dan Aita Santua.
- G. Nor da Aita Santua?
- E. Da Erromaco Apaiz nagusia, Cristoren Ordecoa lurrean, cenari gucioe gauden obligatuac obedecitzera.
- G. Credoa eta Articulu fedecoaz gañera, sinisten dezu beste gauzaric?
- E. Bai, Jauna, Escritura Sagraduan dagoan gucia, eta Jaungoicoae bere Elizari aguerturic dauean gucia.
- G. Cer gauza dira oriec?
- E. Ori ez galde niri, ezjaquiña naizan oni. Eliza Ama Santac baditu Mai-

suac erantzuten jaquingo duenac. M. Ongui diozu eracunsleai dagoquiela eta ez zuri, fedeco gaucetan luceago contu ematea. Asco da zuretzat Articuluen contu ematea, Credoan dau-den becela.

## CRISTAU-DOTRIÑAREN

BIGARREN PARTEA, GEÑEAN AZALTZEN EDO  
DECLARATZEN DAN CER ESCATU BEAR DAN,  
ETA ELIZA AMA SANTAREN ORACIOAC.

Icusi degu nola daquizun sinistu bear dezuna, eta da lenengoa: gatocen bigarrenera, cena dan escatu bear dana. Esazu: Norc esan zuan Aita gurea?

E. Jesu-Cristoc.

G. Certaco?

E. Oracio eguiten guri eracusteco.

G. Cer gauza da Oracio eguitea?

E. Da Jaungoicoagana biotza jasotzea, eta mesedeac ari escatzea.

G. Aita gurea esaten dezunean, norequin itzeguiten dezu?

- E. Jaungoico gure Jaunarequin.  
G. Nun dago Jaungoico gure Jauna?  
E. Lecu gueian, batezere Ceruetan eta  
Aldareco Sacramento guciz Santuan.  
G. Cein da oracioetan onena?  
E. Aita gurea.  
G. Cergatic?  
E. Cergatic Apostoluac escatula esan  
zuan Jesu-Cristoc bere aotic.  
G. Cergatic gueyago?  
E. Cergatic dituan zazpi escari edo pe-  
ticio caridade gueian eguiñae.  
G. Cein dira?  
E. Lenengoa, santificatua izan bedi zu-  
re icena.  
G. Cer escatzen dezu escari orretan?  
E. Janngoicoaren icena izan dedilla eza-  
gutua eta onratua mundu gueian.  
G. Cein da bigarrena?  
E. Botor gugana zure erreinua.  
G. Cer escatzen dezu escari orretan?  
E. Erreiua dezala Jaungoicoac gure ani-  
metan emen lurrean graciaz, eta gue-  
ro eman dizagula Gloria.  
G. Cein da irugarrena?

- E. Eguin bedi zure borondatea nola  
Ceruan ala lurrean.
- G. Cer escatzen dezu escari orretan?
- E. Eguin dezagula Jaungoicoaren bo-  
rondatea lurrean gaudenoc, zorione-  
coac Ceruan eguiten duen becela.
- G. Ceiñ da laugarrena?
- E. Egun iguzu gure egunoroco oguaia.
- G. Cer escatzen dezu escari orretan?
- E. Eman dizagula Jaungoicoac gorpu-  
tzari dagoquion mantenua, eta ani-  
marentzat graciaren mantenu espi-  
rituala eta Sacramentuac.
- G. Ceiñ da bostgarrena?
- E. Barca eguizquiugutzu gure zorrac, gue  
gure zordunai barcatzen diegun be-  
cela.
- G. Cer escatzen dezu escari orretan?
- E. Barca-deguizquiugula Jaungoicoac  
gure pecatuac, gue bareatu diegun  
becela agraviatu gailuenai, eta  
gaizqui eguin digüenai.
- G. Ceiñ da seigarrena?
- E. Ez gaitzatzula utzi tentacioan eror-  
ten.

- G.** Cer escatzen dezu escari orretan?
- E.** Jaungoicoac ez-gaitzala utzi peccatum erori-erazolzeco deabruac da-caizeun pensamento gaizto eta tentacioetan erorten, eta ez oriei leku ematen.
- G.** Cein da zazpigarrena?
- E.** Baicic libra-gaitzatzu gaitzetic.
- G.** Cer escatzen dezu escari orretan?
- E.** Jaungoicoac libra-gaitzala animaco eta gorputzeco gaitz eta peligro guciatic.
- G.** Baña cergatic esaten dezu asieran Aita gurea Ceruelan zaudena?
- E.** Jaungoicoagana biotza jasotzeco, eta ari escatzeco humiltasunarequin eta confianzarequin.
- G.** Amen, azquenean diozun itz arc, cer esan nai du?
- E.** Ala izan dedilla.
- G.** Cer oracio batezere esaten diozcaltu gure Señora Maria Virgiñari?
- E.** Ave Maria eta Salvea.
- G.** Norc esan zuan Ave Maria?
- E.** San Gabriel Ainguerauc gure Señora

- Maria Virgiñari agur eguitera elorri  
zanean. (\*)
- G. Norc esan zuan Salvea?
- E. Eliza Ama Santac dauca artua.
- G. Certaco?
- E. Mesedeac escatzeco gure Señora  
Maria Virgiñari.
- G. Ave Maria edo Salvea esalen dezu-  
nean, norequin itzeguiten dezu?
- E. Gure Señora Maria Virgiñarequin.
- G. Nor da gure Señora Maria Vir-  
giña?
- E. Da Señora bat virtutez eta graciaz  
betea, ceña dan Jaungoicoaren Ama,  
eta dagoana Ceruan.
- G. Eta Aldarean dagoana nor da?

---

(\*) San Gabriel Ainguieruac esan cituan  
itzac dira oec: *Agur Maria, graciaz betea,*  
*Jauna da zurequin; bedeincatua cera zu an-*  
*dre gucien artean.* Santa Isabelec Maria  
Virgiñari esan ciozeanae oec: *Bedeincatua*  
*da zure sabeloco frutua.* Elizac eransi zuan  
*Jesus.* Eta *Santa Maria, Jaungoicoaren*  
*Ama...., eta gañeraco itzac, Elizac dauza*  
*artuac.*

- E. Da Ceruan dagoanaren imagina eta antz bat.
- G. Certaco dago an?
- E. Aldarean dagoana icusita acorda gai-  
tecen Ceruan dagoanaz, eta onen ima-  
giña dalaco erreverenciatu dezagun.
- Maisua.* Bada beste Santuen imaginai  
orobat egun bear diezu.
- G. Eguin bear diegu oracio Aingueruai  
eta Santuai ere?
- E. Bai, Janna, gure bitartekoai becela.
- G. Cer gauza dira Aingueruac?
- E. Zorioneco espiritu balzuec Ceruan  
daudenak Jaungoicoaz gozatzen.
- G. Certaco egun cituan Jaungoicoac?
- E. Bera beti beti alabatu eta bedeineatu  
dezeen.
- G. Eta certaco gueyago?
- E. Bere Ministroac becela goberna de-  
zeen Eliza, eta gorde ditzeen guizo-  
nac.
- G. Beraz zuc gordetzen zaituan Ain-  
gueru goardacoa hadezu?
- E. Bai, badet, eta guizon bacoitzac du  
berea.

*Maisua.* Izan eguiuzu bada devocio an-  
dia eta encomenda-zalzaizca egunoro.

### IRUGARREN PARTEA,

CEÑEAN AZALTZEN EDO DECLARATZEN DAN  
CER EGUIN BEAR DAN.

Icusi degu cer sinistu eta escalu bear  
dezun: icusi dezagun nola daquizun  
cer eguin bear dezun. Esazu: Ceiñ da  
Jaungoicoaren Legueeco lenengo Man-  
damentua?

- E. Jaungoicoa amalzea gauza gucien  
gañean.
- G. Nore amatzen du Jaungoicoa?
- E. Aren Mandamentuac gordetzen di-  
tuanac.
- G. Cer da Jaungoicoa gauza gucien ga-  
ñean amatzea?
- E. Nayago izatea guciac galdu, bera  
ofenditu baño.
- G. Certara queyago obligatzen gaitu  
Mandamentu onec?
- E. Jaungoicoa bacarric adoratzera gor-  
putzeco eta animaco erreverenciaric

andienarequin, argan sinisten eta esperatzen degula fede biciarequin.

- G. Norc eguiten du onen contra pecatu?
- E. Idolgo edo Jaungoico falsoac adoratzen dituanac, edo aetan sinisten duanac.
- G. Norc gueyago?
- E. Aztquierietan sinisten duanac, edo sorguinqueriac edo supersticioco gauzae usatzen dituanac.
- G. Cein da bigarrena?
- E. Jaungoicoaren Icen Santuaz juramentu alperric ez eguitea.
- G. Norc esan oi da juramentu alperric eguiten duala?
- E. Juramentu eguiten duanac eguaia bagne, justicia bagne, eta premia bagne.
- G. Eta pecatu da juramentu alperric eguitea criaturaegaitic?
- E. Bai, Jauna; cergaitic aetan eguiten zayon juramentu Criadoreari.
- G. Cer erremedio da juramentu alperric ez eguiteco?
- E. Oilutzea esatera bai edo ez, Cristoc eracusten digun becela.

- G. Ceiñ da irugarrena?  
E. Jaiegunac santificatzea.  
G. Norc santificatzen ditu jaiegunac?  
E. Meza osoa entzulen duanac, eta premia bagne aetan bearric eguiten ez duanac.  
G. Ceiñ da laugarrena?  
E. Aita eta Ama onratzea.  
G. Norc onratzen ditu gurasoac?  
E. Obedecitzen dienae, socorritzen eta erreverencialzen dituanac.  
G. Nor besteric aditzen da gurasotzat?  
E. Andiagoac edadean, diñadean eta gobernuan.  
G. Ceiñ da bostgarrena.  
E. Iñor ez illtzea.  
G. Cer againtzen da mandamentu oneitan?  
E. Ez eguitea iñori gaitzic ez obraz, ez itzez, ez eta deseoz ere.  
G. Ceiñ da seigarrena?  
E. Araguizco pecaturic ez eguitea.  
G. Cer againtzen da mandamentu oneitan?

- E. Izan gaitecela garbiac eta castoac pensamentuetan, ilzelan, eta obretan.
- G. Ceiñ da zazpigarren?
- E. Ez oslutzea.
- G. Cer againtzen da mandamentu one-tan?
- E. Ez quentza, ez iduquitza eta ez nai izatea besteren gauzaric bere jabearen borondatearen contra.
- G. Ceiñ da zortzigarren?
- E. Testimonio falsoric ez jasolzea, eta guezurric ez esatea.
- G. Cer againtzen da mandamentu one-tan?
- E. Ez egitea erraz projimoaren contra juicio gaiztoric, eta ez esatea eta ez aditza aren faltae.
- G. Norc ausitzen du mandamentu au?
- E. Arrazoiaren contra juzgatzen duanac, fama quentzen duanac, secretoa edo isillie iduqui bear zana aguertzen duanac, edo guezurra esaten duanac.
- G. Cer eragozten da bederatzigarren eta amargarren mandamentuetan?

E. Desonesqueriaren gutiāc, eta aciendaren deseoa.

**Maisua:** Esan-itzatzu Eliza Ama Santaren Mandamentuac.

## ELIZA AMA

SANTAREN MANDAMENTUAC DIRA BOST.

Lenengoa, Igande eta jaiegun gucietan meza osoa entzutea.

Bigarrena, urtean bein guchienez confesatzea, edo lenago, illtzeco pelogrerie nste badu, edo comulgatu bear badu.

Irugarrena, Pazcoa loratuan edo Resurrecciooan comulgatzea.

Laugarrena, Eliza Ama Santac aguintzen duanean barautzea.

Bostgarrena, amarrenac eta primiciac Jaungoicoaren Elizari pagatzea.

G. Certaco dira mandamentu oec?

E. Obeto gordetzeko Jaungoicoarenac.

**Maisua:** Esan-itzatzu Obra Misericordiazcoac.

## OBRA MISERICORDIAZCOAC

DIRA AMALAU: ZAZPI ESPIRITUABI, ETA ZAZ-  
PI GORPUTZARI DAGOZQUIONAC.

*Espirituari dagozquionac dira oec.*

Lenengoa, ez daquianari eracuslea.

Bigarrena, premia duanari conseju ona  
ematea.

Irugarrena, utseguiten duanari, zucen-  
tzeo bidea ematea.

Laugarrena, bidebagueac edo injuriac  
barcatzea.

Bostgarrena, triste dagoana consolatzea.

Seigarrena, gure projimoen alsecabeac  
eta argaltasunac pacienciarequin era-  
matea.

Zazpigarrena, biciagatic eta illacga-  
tic Jaungoikoari erregutzea.

*Gorputzari dagozquionac dira oec.*

Lenengoa, eriac visitatzea.

Bigarrena, goseac dagoanari jaten ema-  
tea.

Irugarrena, egarriac dagoanari edaten ematea.

Laugarrena, cantivoac erreescatalzea edo libratzea.

Bostgarrena, narru gorrian dagoana jancitzea.

Seigarrena, bidezco edo peregrinoari ostatu ematea.

Zazpigarrena, illac enterratzea.

G. Cergatic deitzen zaye obra misericordiazcoac?

E. Cergatic zor ez diran justiciaz.

G. Noiz obligatzen due aguintez?

E. Guizon jaquintsuen iritzian andiac diran premietan.

## LAUGARREN PARTEA

GENEAN AZALTZEN EDO DECLARATZEN DIRAN ARTU BEAR DIRAN SACRAMENTUAC.

Icusi degu, nola daquizun cer sinistru, cer escatu eta cer egun bear dezun. Icusi dezagun, nola daquizun cer artu bear dezun, eta da azqneneko gauza. Esan itzatzu Sacramentuac.

## ELIZA AMA SANTAREN

SACRAMENTUAC DIRA ZAZPI.

Lenengo bostac dira premiazcoac edo artu bear diranac obraz edo deseoz; ceñac bague eciñ salva diteque guizena, uzten baditu desprecioz: beste biac dira borondatezcoac.

Lenengoa, Bataioa.

Bigarrena, Confirmacioa.

Irugarrena, Penitencia, edo Confesioa.

Laugarrena, Comunioa.

Bostgarrena, Oleacioa.

Seigarrena, Ordena.

Zazpigarrena, Ezcontza edo Matrimonioa.

G. Cer gauza dira Sacramentuac?

E. Dira Cristo gure Jaunac egun cituan senale aguiri diran batzuec, emaleko guri oen bidez bere gracia eta virtuteac.

G. Cer gauza da gracia?

E. Da izate Jaungoicozco bat eguiten

duana guizona Jaungoicoaren seme,  
eta Ceruaren jabegai.

G. Cer virtute ematen ditue Sacramen-  
tuac graciarequin batean?

E. Batezere iru Teologalac eta Jaungoi-  
cozcoac.

G. Geiñ dira?

E. Fedea, Esperanza, eta Caridadea.

G. Cer gauza da Fedea?

E. Icusi ez deguna sinistea, cergatik  
Jaungoicoac aguerlu duan.

G. Cer gauza da Esperanza?

E. Esperatzea Gloria, Jaungoicoaren  
graciaren, eta gure obra onen bidez.

G. Cer gauza da Caridadea?

E. Amatzea Jaungoicoa gauza gucien  
gañean, eta gure projimeac gueren  
buruac becela, izaten guerala aec-  
quiñ, aez gurequin izatea nai guen-  
duquean becela.

G. Certako izan zan eguiña Bataioco  
Sacramentua?

E. Quentzeco pecatu jatorrizcoa edo ori-  
ginala, eta bataiatzen danagan ar-  
quitzen dan beste edocein.

- G. Cer da pecatu originala?
- E. Gure lenengo gurasoetatic datorquigun pecatu ura, ceñarequin gucioc jayotzen gueran.
- G. Certaco da Confirmacioko Sacramentua?
- E. Gu confirmatzeko eta sendotzeco bataioan artu guenduan fedean.
- G. Certaco da Penitenciako Sacramentua?
- E. Bataioa ezquero eguindako pecatuac barcalzeco.
- G. Cer pecatu dira oriec?
- E. Mortalac edo eriozcoac, baita venialac ere.
- G. Cer da pecatu mortala?
- E. Da esatea, eguitea, pensatzea edo deseatzea cerbait Jaungoicoaren leguearen contra, gauza pisu edo andian.
- G. Cergatic deritza mortala?
- E. Cergatic illtzen duan eguiten duanaren anima.
- G. Cer parte ditu penitenciac pecalu mortala quentzeco?
- E. Iru.

- G. Ceiñ dira?
- E. Biotzeco damua, aozeo confesioa, eta obrazco satisfacioa.
- G. Eta pecatu mortalean erorten dan gucion, bereala confesatu bear du batec barcatu daquion?
- E. Ongui izango litzaque, baña ez da premiazco gauza.
- G. Cer eguna bear du bada?
- E. Bere pecatuen damu eguiazcoa bicitza ontzeco asmoarequin iduqui, eta Eliza Ama Santac againtzen duanean confesatu.
- G. Cer gauza da pecatu veniala?
- E. Da pecatu mortaleraco prestaera, edo bide bat.
- G. Cergatic deritza veniala?
- E. Cergatic erraz erorten dan guizonea arlan, eta erraz barcatzen zayon.
- G. Cembañ gauzagatic barcatzen zayo?
- E. Bederatzigatic.
- G. Cein dira?
- E. Lenengoa, Meza entzuteagatic.  
Bigarrena, Comulgatzeagatic.  
Irugarrena, Ni pecataria esateagatic.

Laugarrena, Obispoaren hendizioagatik.  
Bostgarrena, ur bedeineatuagatik.  
Seigarrena, ogui bedeineatuagatik.  
Zazpigarrena, Aita gurea esateagatik.  
Zortzigarrena, sermoia aditzeagatik.  
Bederatzigarrena, bularreco golpeagatik, barcacio escatzen zayola Jaungoicoari.

G. Certaco da Comunioko Sacramentu gueiz Santua?

E. Artzen degula bear dan prestaera-requin, izan dedin gure animen janari, eta ugaritu dizagun gracia.

G. Cer artzen dezu Comunioko Sacramento gueiz santuan?

E. Cristo Jaungoico eta Guizon eguiaz-coa, ceña dagoan eguiaz Aldareko Sacramentu gueiz Santuan.

G. Certaco da Oleacioko Sacramentua?

E. Iru gauzatarako.

G. Ceiñ dira?

E. Lenengoa, bicitza gaizto pasaluaren arrastoak eta eutsuak quentzeco.

Bigarrena, animari indarra emateko demonioaren tentacioen contra.

Irugarrena, gorputzari osasuna emateco conveni bazayo.

G. Certaco da Ordenako Sacramentua?  
E. Consagratzeko eta ordentzeco Elizaren dinako Ministroac, nola diran Sacerdoteac, Diaconoac eta Subdiaco-noac.

G. Certaco da Matrimonioko Sacramen-tua?

E. Ezcontzeco eta ezconduai emateco gracia, onequin bici ditecen alcarre-quin pauean eta aci ditzeen aurrae Ceruraco.

## PECATU CAPITALAC

### EDO BESTEEN SUSTRAYAC DIRA ZAZPI.

Lenengoaz, Soberbia.

Bigarrena, Avaricia edo Guticia.

Irugarrena, Lujuria.

Laugarrena, Ira.

Bostgarrena, Gula.

Seigarrena, Embidia.

Zazpigarrena, Naguitasuna.

G. Cergatic deitu diezu pecatu capita-

lac, gueyenean mortalac deitzen za-  
yen zazpiai?

E. Deitzen zaye capitalac, cergatik di-  
ran oectatic jayotzen diran beste vi-  
cioen buruac, iturriac eta sustrayac  
becela, eta mortalac deitza ez da-  
goquie aín ongi, bada ascolan ez  
dira venialac baño gueyago.

G. Noiz dira mortalac?

E. Jaungoicoaren eta projimoaren ca-  
ridadearen contra diranean.

G. Noiz dira caridadearen contra?

E. Aecquiñ ausitzen danean Jaungoicoa-  
ren edo Elizaren mandamenturen bat  
gauza andian.

G. Cer da Soberbia?

E. Besteac baño gueyago izaleco deseo  
erabagueco bat.

G. Cer da Avaricia?

E. Aciendaren deseo erabagueco bat.

G. Cer da Lujuria?

E. Araguiaren atseguiñ ciquiñen deseo  
erabagueco bat.

G. Cer da Ira?

E. Venganzaren deseo erabagueco bat.

- G. Cer da Gula?  
E. Jateco eta edateco deseo erabagueco bat.  
G. Cer da Envidia?  
E. Besteren onaren damu edo eciñ eraman bat.  
G. Cer da Naguitasuna?  
E. Obra onac eguiteco animoaren falta edo alzerapen bat.

*Zazpi vicio oen contra dira zazpi virtute.*

Soberbiaren contra, Humiltasuna.  
Avariciaren contra, Liberaltasuna edo emanaitasuna.  
Lujuriaren contra, Castidadea.  
Iraren contra, Paciencia.  
Gularen contra, Templanza.  
Envidiaren contra, Caridadea.

*Animaren etsai igueseguiñ bear diegunac dira iru.*

Lenengoa, Mundua.  
Bigarrena, Demonioa.

- Iragarrena, Araguiá.
- G. Nola igueseguiten da Mundua-gandic?
- E. Onegandic igueseguiten da eta au ventzitzen da, despreciatuaz bere pompa eta vanidadeac.
- G. Nola igueseguiten da Demonioagan-dic?
- E. Oracioarequin eta humiltasunare-quin.
- G. Nola igueseguiten da Araguiá-gandic?
- E. Onegandic igueseguiten da eta au ventzitzen da gorputza gogor trala-tzearequin, diciplinaequin eta berauacquin: au da etsairic andiena, cergatic eciñ aparta dezaquegun araguia gugandie: Mundua eta Demonioa bai.

## VIRTUTE

TEÓLOGALAC EDO JAUNGOICOAGANONZCOAC  
DIRA IRU.

Lenengoa, Fedea.

Bigarrena, Esperanza.

Irugarrena, Caridadea.

## VIRTUTE

PRINCIPALAC EDO CARDINALAC DIRA LAU.

Lenengoa, Prudencia.

Bigarrena, Justicia.

Irugarrena, Fortaleza.

Laugarrena, Templanza.

## GORPUTZAREN

SENTIDUAC DIRA BOST.

Lenengoa, beguiacquin icustea.

Bigarrena, belarriacquin aditzea.

Irugarrena, aoarequin gusto artzea.

Laugarrena, sudurracquin usai eguitea.

Bosgarrena, escuacquin uquitzea.

G. Certaco eman cizquigun Jaungoicoac sentiduae eta beste miembro edo parte guiac?

E. Guiaequin bera servi guentzan gauza guielan.

## ANIMAREN

ALMENAC EDO POTENCIAC DIRA IRU.

Memoria.

Entendimentua.

Borondatea.

G. Certaco eman cigun Jaungoicoac Memoria?

E. Beraz eta bere mesedeaz acordalizeco.

G. Certaco eman cigun Entendimentua?

E. Gure Jauna ezagutzeco, eta argan pensalzeco.

G. Certaco eman cigun borondatea?

E. Ontasunie andiena becela bera amalizeco, eta lagun projimoa beragatik.

## ESPIRITU

SANTUAREN DOAIAC DIRA ZAZPI.

Lenengoa, Jaquinduriaren Doaia.

Bigarrena, Entendimentuaren Doaia.

Irugarrena, Consejuaren Doaia.

Laugarrena, Cienciaren edo cintzolatsunaren Doaia.

Bostgarrena, Fortalezaren edo indarra-ren Doaia.

Seigarrena, Piedadearen Doaia.

Zazpigarrena, Jaungoicoaren bildurra-ren Doaia.

## ESPIRITU

### SANTUAREN FRUTUAC DIRA AMARI.

Lenengoa, Caridadea.

Bigarrena, Paquea.

Irogarrena, Longanimidadea, edo antimoaren firmetasuna.

Laugarrena, Benignidadea edo biotzeco bigontasuna.

Bostgarrena, Fedea.

Seigarrena, Continencia edo atseguin debecaluen gogoa ecitzea eta hilduratzea.

Zazpigarrena, Espírituco atseguinua.

Zortzigarrena, Paciencia.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Mansotasuna.

Amieagarrena, Modestia.

Amabigarrena, Castidadea.

## ZORIONAC EDO BIENAVENTURANZAC.

### DIRA ZORTZI.

- 1.<sup>a</sup> Zorionecoac espirituz pobre diranac, cergatic aena dan Ceruetaco erreiňua.
- 2.<sup>a</sup> Zorionecoac mansoac, cergatic aec izango diran lurraren jabe.
- 3.<sup>a</sup> Zorionecoac negar eguiten duenac, cergatic aec izango diran consolatuac.
- 4.<sup>a</sup> Zorionecoac justiciaren gose eta egarri diranac, cergatic aec izango diran aseac.
- 5.<sup>a</sup> Zorionecoac misericordiotsuac, cergatic aec irichico duen misericordia.
- 6.<sup>a</sup> Zorionecoac biotzgarbicoac, cergatic aec Jaungoicoa icusico duen.
- 7.<sup>a</sup> Zorionecoac paquetsuac, cergatic aec izango diran deituac Jaungoi-coaren semeac.
- 8.<sup>a</sup> Zorionecoac justiciagatic persegui-

tuac, cergatic aena dan Ceruetaco erreinua.

- G. Cer esan degu orain?
- E. Zortzi zorionac.
- G. Cer gauza dira zortzi zorion oec?
- E. Espiritu Santuaren virtuteen eta doaien obrarie onenac.
- G. Nor dira espirituz pobreac?
- E. Onrarietako aberastasunak, guchirik ere, nai ez duenac.
- G. Nor dira mansoac?
- E. Irariek ez duenak, ez eta casi iraren mugimenturiek ere.
- G. Nola izango dira luraren jabe?
- E. Beren buruen jabeak becela.
- G. Nor dira negar eguiten duenak?
- E. Atseguiñ peccatu ez diranak ere uzten dituenak.
- G. Nor dira justiciaren jgose eta egarri diranak?
- E. Beren eguibide guchai kontuz erantzuten dienak.
- G. Nor dira misericordiotsuac?
- E. Arrotzaquin ere biotz chit beraa duenak.

- G. Nor dira biotz garbieoac?
- E. Beren pasioetan oso mortificatuac  
diranae.
- G. Nor dira paquetsuac?
- E. Paquezeo obrac berengan eta bestee-  
tan eguiten dituenac.
- G. Nor dira justiciagatic perseguituac?
- E. Guelan sendo daudenac perseguituac  
izan arren.
- G. Cergatic deitzen zaye oei zorionac?
- E. Cergatic oetan dagoan bicitza one-  
taco zoriona eta bestearen esperanza.  
*Maisua.* Jaunac gucioc ara eraman  
gaitzala. Amen.

### NI PECATARIA.

Ni pecataria confesatzen naitzayo  
Jaungoico gueiz poderosoari, Santa Ma-  
ria beti Virgiñari, San Miguel Aingue-  
ruari, San Juan Bautistari, San Pedro  
eta San Paulo Apostoluai, Santo gu-  
ciasi eta zuri, Aita, pecatu gueyegui  
eguin dedala pensamentuz, iliez eta  
obraz, nere culpaz, nere culpaz, nere

culpa chit andiaz. Argatic erregotzen diot Santa Maria beti Virgiñari, San Miguel Aingueruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Paulo Apostolai, Santu guciai eta zuri, Aita, erre-gutu deguiozuela nigatic Jaungoico gu-re Jaunari.

## ACTO CONTRICIOZCOA EDO ONEZ-CO DAMUA.

Nere Jesu-Cristo Jauna, Jaungoico eta Guizon egniazcoa, nere Criadorea eta Erredentoreoa, zu erana izanagatic, eta ergatic amatzan zaitudan beste gauza guciae baño gueyago, damu det nere biotz gucitie Zu ofenditua, eta artzen det asmo sendoa inoiz ez gueyago pecaturie egniteco, confesalzeco, emalen zatan penitencia cumplitzeco, eta aparlatzeco Zu ofenditzero ocasio guciatic. Esqueintzen dizquitzut, Jauna, nere bicitza, obrae eta nequeac nere pecalu gucien satisfactorao, eta daducat confianza zure ontasun eta misericordia

caburic gabean barcatuco dizquidatzula zure Odol chit preciotsu, Pasio eta Eriotzaren merecimentua egaotic, eta emango didazula gracia bicitza ontze-ko eta zure servicio santuan irauteko nere bicitza guian. Amen.

(*Oneraño da Aita Asteteren Catecismoa edo Dotriña.*)

## JAUNGOICOAREN SEMEA NOLA GUI- ZON EGUN ZAN, EDO

*Encarnacioco Misterioa.*

G. Cer da Encarnacioco Misterioa?

E. Irutasuneko edo Trinidadeko bigarren Persona, ceña dan Aita Eternoa-ren Semea, guizon eguitrea Maria Virginaren sabelean guizonaren obra bague, baicic Espiritu Santuaren obraz, zalaric Ama beti Virginia aurguitea baño len, aurguitean eta aurguitea ezquero.

G. Cer aditzen dezu Trinidadeko bigarren Persona guizon eguiteaz?

- E. Aditzen del beregana artu cituala gureen antzeco gorpuztela anima bat.
- G. Nola deritza Jaungoicoaren Seme Guizon eguiñari?
- E. Jesu-Cristo.
- G. Eta Jaungoicoaren Semeac Guizon eguin zanean, utzi edo galdu ote zuan Jaungoico izatea?
- E. Ez, Jauna, etzuan galdu eta ecīñ galdu cezaquean, eta orregatic dembora berean da Jaungoico eta Guizon eguiazcoa.
- G. Noren obraz eguiña izan zan Misterio miragarri au?
- E. Ez guizonaren, baicic Espiritu Santuaren obraz eta graciaz.
- G. Cer eguiñ zuan Espiritu Santuac?
- F. Lau gauza.
- G. Cein dira?
- E. Lenengoa: moldatu zuan gorputz bat Virginā chit Santaren odol garbiarequin, eta Virginā beraren sabelean: Bigarrengo, ecerezetic eguin zuan anima bat: Irugarrengo, anima au etman edo unitu eion gorputzari: Lau-

garrengo, gorputz eta anima au osatu eitzan Trinitateko bigarren Personarekin, eta gueratu zan au Guizor eguna.

- G. Lan gauza ote egnin ote eitzan Espiritu Santuac bata bestearen ondoren?
- E. Ez, Jauna, baieie batetan Virgina chit Santuac bere baimena Ainguerauri eman eion instante artan bertan.
- G. Cer esan eion Virgina chit Santuac Ainguerauri bere baimena ematean?
- E. *Ona ni Jaunaren servitzaria. Eguin bedi nigan zue diozuna, eta diozun eran.*
- G. Obra miragarri au Espiritu Santuac beceta etzuen egun Aitac eta Semiac ere?
- E. Bai, Jauna, irurac egun zuen.
- G. Cergatik esan dezu bada egnina izan zala Espiritu Santuaren obraz eta graciaz?
- E. Cergatik dan Jaungoicoaren guganako amorioaren obra andia, eta amoioa Espiritu Santuari berez dago-

quiona becela aditzera ematen dan, Aitari Poderea eta Semeari Jaquinduria becela; baña iru Personae Jaungoico eguiazco batec becela eguin bazuen ere obra andi au, Semeac bacarric artu zuan guizonaren izatea edo naturaleza; eta ala Semeac ditu bi izate edo naturaleza, bata Jaungoicoarena, eta bestea guizonarena, eta Aitac eta Espiritu Santuac ez due Jaungoicoaren izatea edo naturaleza baicie.

G. Cembał Entendimentu eta Borondate ditu Jesu-Cristoc?

E. Bi Entendimentu, eta bi Borondate, bata Jaungoicoarena eta bestea guizonarena.

G. Eta cembał Persona dira Jesu-Cristogar?

E. Bat bacarra, eta au Jaungoicoarena edo Divina.

G. Cembał memoria ditu Jesu-Cristoc?

E. Bat, eta au guizona dan aldetic, ergatik Jaungoicoa dan aldetic gauza guciac dauzea bere aurrean edo pre-

- sente, eta ez du memoriaren bearric.
- G. Jesu-Cristoek badu Aitaric edo Amari?
- E. Jaungoicoa danez badu Aita, ceña dan Aita Eternoa, eta ez du Amari.
- Guizona danez badu Ama, ceña dan Maria beti Virgiña eta ez du Aitaric.
- G. Jesu-Cristo Jaungoicoa danez, edo Guizona danez da lenagocoa?
- E. Jaungoicoa danez da lenagocoa, bada alde onetatic beticoa da, baña Guizona danez ez da beti izan; bada alde onetatic da Maria Virgiñaren sabelean Espiritu Santuaren obraz eta graciaz sorlu ezquerocoa.
- G. Nun dago Jesu-Cristo?
- E. Jaungoicoa danez, dago leku gucian; baña Guizona danez Cernan eta Aldareko Sacramentuan bacarric.

### ALDARECO

SACRAMENTU SANTUAREN AZALDURA EDO  
ESPLICACIOA.

- G. Cer dago Aldareco Sacramentu San-tuan?

- E. Dago Jesu-Cristo gure Jauna, Jaungoico eta Guizon eguiazcoa, Ceruan dagoana bera.
- G. Cer aditzen dezu Aldareco Sacramentu Santuaren icenez?
- E. Ostia consagratua.
- G. Cer dago Ostian consagratu baño lenago?
- E. Ogui pisca bat.
- G. Eta cer dago consagratu ezquiero?
- E. Dago Jesu-Cristo gure Jaunaren gorputza, eta nola gorputza dagoan biciric eta unituric Jaungoicoaren Semearren Personarequin, badago odola ere, baita anima, Jaungoicototasuna eta iru Persona Jaungoicozcoac ere.
- G. Cer dago Calizan consagratu baño lenago?
- E. Ardo pisca bat ur tanto batequin.
- G. Eta cer dago consagratu ezquiero?
- E. Dago Jesu-Cristo gure Jaunaren odola, eta nola odola dagoan gorputzarequin unituric, badago gorputza ere, baita anima, Jaungoicotatasuna eta iru Persona Jaungoicozcoac

ere, alako moduan ece, Jesu-Cristo  
gucia dago Ostian eta gucia Calizan.

G. Ieusten da Jesu-Cristo gure Jauna  
Sacramento Santu onetan?

E. Ez, Jauna, ez da ieusten oguiaren  
eta ardoaren colorea, eta beste acci-  
dente edo iduriaec baicie; baña an ez-  
dago oguiric eta ez ardoric Sacerdo-  
teac consagracioco ilzae esan ez-  
quiero.

G. Ostia consagratuaren erdia edo par-  
te bat artzen duanac, Jesu-Cristo  
gucia artzen du?

E. Bai, Janna, gucia artzen du; bada  
Ostiaren parterie chiquienean dago  
Jesu Cristo gucia Ostia osoan becela,  
eta Sacerdoteac partitzen badu ere  
Ostia consagrata pusca ascotan, ez  
da partitzen Jesu-Cristo gure Janna,  
baicie guelditzen da osorio parte ba-  
coitzean, aiñ andia eta osea parte  
chiquian, nola andian.

G. Cembał gauza bear dira ondo co-  
mulgatzeko?

E. Iru, Janna,

G. Ceiñ dira?

E. Lenengoa, ecer artu bear dan jaquitea. Bigarrena, barau naturalean, edo gauerditie comulgatu arlean ecer jan eta edan bagne egotea. Irugarrena, Jaungoikoaren gracian egotea.

## COMULGATU

### AURREAN ESATECO ORACIOA.

¡Nere Jesus maitagarria! Nic deseatzen det zu artzea nere biolzean zure Ama, Virgiña chit Santac, eta Ceruco Santu guciae artu cinduen garbitasun eta amorioarequin.

*Eta Sacerdoleac ostia beatzelan artzen  
duanean, esaten da iru bider.*

Jauna, ez naiz ni zu nere echean edo animan sartzeo díña; baña zure itzaz nere anima salvatueo da.

## COMULGATU ONDOAN ESATECO ORACIOA.

O Ceruetaco eta lurreco Jaun andia!  
¿Cer merecimentu izan det nic zu ni-  
gana etortzeco? Bedeineatua izan de-  
dilla zure ontasun eta misericordia,  
cergatic eguin diozun onembeste me-  
sede zure criatura oni. Ainguerauc  
eta criatura guciac bedeineatu zai-  
tzeela, Jauna, piedade andi onegatic.

## CONFESIO ONAREN PARTEAG CEMBAT, ETA NOLA DIRAN.

- G. Confesio on bat eguiteco cemba gau-  
za bear dira?  
E. Bost, Jauna.  
G. Cein dira?  
E. Lenengoa, Examiña.  
Bigarrena, Dolorea.  
Irugarrena, Propositua.  
Laugarrena, Confesioa.

- Bostgarrena, Satisfacioa.
- G. Cer gauza da Examiña?
- E. Eguindaco pecatuac gogora ecartzea confesatzeko guciaç.
- G. Cembał dembora bear da pecatuac gogora ecartzeco?
- E. Ez da dembora jaquiñic, baicic begiraturic bacoitzac bere capacidaderi, eta confesatu bague egon dan demborari, artu bear du premia duan dembora, eta ipini lan onetan eguiteco andi batean ipintzen dan contua, cergatic au dan eguitecoric andiena.
- G. Nundie ecarrico ditu pecatuac gogora?
- E. Jaungoicoaren Legueco Mandamentuetatic, Eliza Ama Santarenetatic, eta bere estadu edo bicimoduaren obligacioetatic, icusiaz cer mandamenturen contra, eta cembał bider eguiñ duan pecatu pensamentuz, itzez eta obraz.
- G. Cer gauza da Dolorea?
- E. Jaungoicoa ofenditutako damua.
- G. Cembał modutan da dolorea?

E. Bitan, Jauna.

G. Ceiñ dira?

E. Contricioa eta Atricioa.

G. Cer gauza da Contricioa?

E. Jaungoicoa ofenditutaco damua, cergatik dan neurri bague ona, santua eta maitagarria, confesatzeko, bicitza ontzeco eta penitencia cumplitzeco asmoarequin hatean.

G. Cer gauza da Atricioa?

E. Jaungoicoa ofenditutaco damua, edo pecatuaren itsustasunagatik, edo infernuaren bildurragatik, edo Gerniko Gloria galduagatik, confesatzeko, bicitza ontzeco eta penitencia cumplitzeco asmoarequin batean.

G. Cein da dolore oetan bietan onena?

E. Contricioa da aseoz ohea atricioa banio; cergatik aeto contriciozeoa egiten duanari confesatzeko asmoarequin, barcatzen zaizka pecatuak confesatu bano lenago; eta aeto au egiten duan instante artua guelditzen da Jaungoicoaren graciak; hana atriciozko aetoa egiten duanari, elzaizca

barcalzen pecatuac confesioco Sacramentuarequin batean baicic; eta one-gatic balijoaz confesatzera bi persona pecatu mortal egun duenac, bata contricioaren dolorearequin eta hesta atricioarenarequin, eta biac ilko balira confesatu baño lenago, contricioarequin dijana salvatueo litzaque, eta atricioarequin dijana condenatuko litzaque.

G. Pecatu mortalean dagoana arquituko balitz illtzeo peligroan eta confesore bagne, nola libratuko litzaque peccatutie?

E. Acto contriciozeo bat egun-da.

G. Cer gauza da Propositua?

E. Da artzea asmo sendo bat inoiz ez gueyago pecaturic eguiteco, eta apartalzeo pecatu eguiteco ocasio eta bide gucietatic.

G. Apartatu al-ditequeala apartatzen ez danac pecatu eguiteco ocasioetatic, dauca propositu eguiazcoa?

E. Ez Jauna, baicican falsoa.

G. Cer gauza da Confesioa?

- E. Esatea Confesoreari norc bere pecatu mortal guciac batere lotsaz ulzi bague.
- G. Bada pecatu venialac confesatzeko obligacionic?
- E. Obe da confesatza, baña ez da obligacionic.
- G. Pecatu mortal bat confesatza azlutzten bazayo bati, confesio ona egungo du?
- E. Bai, bere culpaz azlutzten ezpazayo; baña guero acordatu ezquero, confesatu bear duurrengo confesioan.
- G. Pecatu mortal bat lotsaz confesatu bagne utzitzen duana salva diteque penitenciacquin eta beste obra onacquin?
- E. Eein salva diteque santu guciac baño penitencia, eta obra on gueyago eguingo balitu ere.
- G. Arquitzen bada Cristau bat pecatu chit andi eta icaragarrizco batequin, edo ascorequin, nun arquituko du orien erremedioa?
- E. Confesio on batean.

- G. Confesoreac salatu dezaque penitencia?
- E. Ez, biciric erreco balne ere eciñ infoiz esango du confesioco gauzaric.
- G. Beraz ez da aitzquiriarie batere pecatuac confesatu bague utzitzeco?
- E. Ez, Jauna, eta ondo confesatzen ez dituana, bere culpaz condenatuko da.
- G. Cer gauza da Satisfacioa?
- E. Pagatzea penitenciaco obracquin pecatuagatik zor dan pena.
- G. Certan dago satisfacio au?
- E. Confesoreac ematen duan penitencia artzean, eta ondo cumplitzean.
- G. Penitencia artzen duanac cumplitze-  
co intencioarequin, confesio ona egui-  
ten du, ezpadu cumplitzen?
- E. Bai, Jauna; baña cumplitu bague utzitzen duan penitencia andia bada,  
pecatu mortala eguiten du, eta peca-  
tu au confesatu bear du urrengo con-  
fesioan.

## CONFESATU

AURREAN ESATEGO ORACIOA.

Jaun andi eta nere Jaungoico beticoa, Aita eta Semea eta Espiritu Santua. Nie sinisten det benaz emango diezula onai saria, eta gaitztoai castigua. Daducat nere pecatu gucien damua Zucerana izanagatic eta cergatic amalzen zaitudan beste gauza guciac baño gueyago. Artzen det asmo sendoa bicitza ontzeco, eta indazu onetaraco bear dedan gracia. Nai det cumplitu confesoreac ematen didan penitencia, eta daducat esperanza zure ontasun eta misericordia neurri haguean barcaluco dizquidatzula nere pecatuac, eta salvatuco nazula nere Jesu-Cristo Jaunaren merecimentuaegatic. Amen.

## CONFESATU

ONDOAN ESATECO ORACIOA.

¡Nere Jesus maitagarria! Ematen dizquitzut esquer asco, cergatic utzi eida-

zun erremedio aīñ erraza, eta biguna nere pecatuen barcacioa alcantzalzeco, eta arizen det asmo sendoa gueyago Zu ez ofenditzeco. Amen.

**GOICEAN ETA ARRATSEAN CRISTAUAG EGUNIN BEAR LUQUEAN JAYERA EDO DEVOCIOA.**

*Goiceracoa.*

*Goicean jantzi zaite modestia eta onestidadearequin Aita gurea, Ave Maria, Credoa edo beste oracioren batzuoc esanaz. Jarri zaite Jaunaren aurrean, oroitzen cerala nola beguira dagoquizun. Adoraezazu umiltasun eta errespeto guciarequin. Eman guiozcatzu esquerrac, eta esqueñi guiozcatzu zure pensamentu, itz eta lan guciac era onetan,*

**JAUNA ADORATZEA.**

[Nere Jaun eta Jaungoicoa! Zu cera gauza gucien Asiera eta Iturburua,

gucien Iraupena eta Muga edo Fiña, eta ni naiz nerez ecereza eta dedan izate au ere zure esku onguilleac emana da. Ala ezagutzen eta aitortzen det eta adoratzen zaitut umiltasun eta errespeto guciarequin.

### JAUNARI ESQUERRAC EMATEA.

Milla esquer, Jauna, oraindaño eguin dizquidatzun mesede guciaegalic. Milla esquer, ceren ecerezetic eguin ninduzun eta eguiñ, Zu emen ezagutzeco, amatzeco, servitzeco eta guero beticolasun gucian Zurequin batean Ceruan zorioneko izateco. Milla esquer, ceren Zure Seme Jesusen Odol preciosuarequin Adanen pecaluaren mendetic atera, eta Zure Elizaren ume bataioan eguiñ nazun.

Milla esquer atzenean, ceren igaro dan gau onetan bicitza gorde didazun.

### JAUNARI PENSAMENTU, ITZ ETA OBRAC ESQUEINTZEA.

Esqueintzen dizquitzut, Jauna, gaurko nere pensamentu, itz eta obrac. Be-

tor, Jauna, zure laguntza eta gracia, eguiñ ditzadan nic gaunco nere lanac Zue nai dezun eran, eta Zure onra, eta gloriaraco.

## EXAMINA ETA EGUN GUCIRACO ASMO ONAC.

*Oroi-zaite emen dembora pisca bat-  
ean lembicia: cer utseguitc eguiñ dezun  
bartdanic onera. Bigarrena: cer Man-  
damentu gueyena ausi oi dezun. Iru-  
garrena: zure grīna charren artean  
ceiñ dan nagusi edo indartsnena. Esca-  
guiozu Espiritu Santuari bere laguntza  
eta gracia esaten diozula guisa onetan.*

Atoz, ó Espiritu Santual Atoz bears-  
tsuen gurasoa! Atoz doaien emalleal  
Arguiezazu bere entendimentua nic ne-  
re utseguiteac ezagutzeco. Mugniezazu  
nere biotza oen gañean damutzeco.

*Zaude oraiñ pisca batean zure utse-  
guiteac eta oen sustraya gogora ecar-*

*tzen isillie::: Eguizu asmo osoa alde-  
guiteco pecatutic eta pecatuaren bideetatic  
batezere araco gueyena eguin oi de-  
zun peccatu artatic. Ar-ezazu asmo sen-  
do bat escuratzeco eta ecitzecho orraco  
zure griñia eta genio char ori. Arezazu  
zure bitartecolzac Virgiña guciz Santa,  
zure Aingueru guardacoa, San José  
eta zure iceneco Santua::: Equitzu  
orain Fede, Esperanza, Caridade eta  
Contriciozco actoac era onetan.*

## ACTO FEDEZCOAC.

Jaungoico, Jaquinduria eta eguiia beticoa cerana! Sinisten ditut benaz eta biotz gucitik Eliza Ama Santac sinisten eta eracusten dituan gauza guciac, ceren Zuc Eliza Ama Santari aguertu diozcatzun, eta onec ala eracusten dizquidan.

Sinisten det, Jaungoico, Aita guciz poderoso, Ceruaren eta Iurraren Criadoreagan. Eta aren Seme bacar Jesu-Cristo gure Jaunagan: ceña sortua izan

zan Espiritu Santuaren obraz eta graciaz, jayo zan Maria Virgiñagandic, padecilu zuan Poncio Pilatosen mendean, izan zan gurutziltzatua, illa eta enterratua: jachi zan infernuetara, piztu zan illen artetic irungarren egunean: igo zan Ceruetara, dago jarriric Jaungoico Aita guciz poderosoaren alde escuitic: andic etorrico da bieiae eta illac juzgatzen. Sinisten det, Espiritu Santuagan: Eliza Santa Catolica: Santuen Comunioa: pecatuuen barcacioa: araguiaren piztulzea: bicitza beticoa. Amen. (\*)

Sinisten det, Jesu-Cristo gure Jaunac utzi ciozcala Eliza Ama Santari zazpi Sacramentu, eta oen artean Confesioco Sacramentua, bataioa ezquero egundako pecatuac baratzeko. Sinisten det, Jesu-Cristo gure Jaunac ipiñi zuala Aldareco Sacramentu guciz miragarria,

---

(\*) Symbolum Apostolorum est profesio fidei, quæ à Catechumenis exigeatur. Hæc est formula Actuum fidei ab exordio Ecclesiæ ussitata. (*Catec. de Cardaveraz.*)

eta Sacraimentu onetan dagoala gure animen janari eta edari izateco, gracia ugaritzeco, eta bere gozotasun miragarriac gure biotzetan issurtzeco. Siniste onetan bici eta ill nai det.

### ACTO ESPERANZAZCOA.

Nere Jaun eta Jaungoicoa! Zure Seme Jesusen eriotza eta merecimentuac bitarteko dirala, eta beraren graciarequin aleguiña eguiten dedala, esperatzen det Zure Ontasun eta Misericordian nere pecatuen barcacioa eta betico bicitza zorionecoa; ceren Zuc ala aguindu didazun eta cere itzelan aiñ leyala ceran. Zu cera on guciaren Iturburua, eta Emallea, eta Zugandie ustet det, Jauna, Ceruraco bidean bear dedan gucia.

### ACTO CARIDADEZCO ETA CONTRICIOZCOA.

Nere Salvatzallo Jesus mailagarria! Zu cera Ontasun bazterbaguea eta neur-

riric ez dezuna, eta beragalic gueiz maitagarria. Amatzen zaitut biotz guctie, zure Ontasun orri beguiraturic. Eta Zugalic eta zure icenean ámatzen ditut nere progimo guciac, eta oen arlean nere elsayac. Opa diet Cerua eta araco bidean conveni zaten gucia. ¡O Ontasun miragarria! Damu det Zu ofendituaz, eta damu det gauza gucien gañetic. Artzen det asmo osoa ez gueyago pecaturic eguiteco, pecalbarren bideetatic aldeguiteco, eta confesatzeco. (\*)

Nere Cristana, goiceco jayera edo devocio au da beste gucien cimendua becela. Saya zaile au icastera eta onen oitura artzera. Ez dezu onembestere-quin ero contentatu bear. Sarritan oroitu bear cera egunaz cere nequeen arlean, nola arquitzen ceran Jaunaren aurrean eta beguietan, nola beguira dagoquizun Jaun bera, eta nola prest dagoan zuri laguntzeco eta bear dezun gu-

---

(\*) Devocio au ongi icsi duen aurrai, erraz eracutsieo zate ongi confesatzeco prestaera. (*Catec. de Cardaveraz.*)

cia emateco. Noicean beiñ bada cere lanetan alcha ezazu biotza Jaunagana, eta esan guiozu: Jauna: *esana, esan: goicecoan bertan arquitzen naiz; zure icenean, eta zure onraraco izan bedi negue au: Laguntzaquizquit arren.* ¿Cer ondasunac devocio onelatic ez dituzu ateraco, Cristaua, era onelan sayatzen cerala? ¿Cer obra on eta Ceruraco irabaciak ez dituzu bilduko? Equiñ bada, equiñ devocio oni.

## ARRATSERACOA.

*Jarri zaite Jaunaren aurrean oroitzen cerala nola beguirea dagoquizun. Adora ezazu umiltasun eta errespelo guciarequin. Eman guiozcatzu esquerrac eta esqueñi guiozcatzu zure pensamentu, itz, obrac, eta loa era onefan.*

Nere Jaun eta Jaungoicoal Zu cera gauza gucien Asiera eta Iturburua, gucien Iraupena eta Muga edo Fiña, eta ni naiz nerez ecereza, eta dedau izate

au ere Zure escu onguilleac emana da.  
Ala ezagutzen eta aitortzen det, eta  
adoratzen zaitut umiltasun eta errespe-  
to guciarequin.

### JAUNARI ESQUERRAC EMATEA.

Milla esquer, Jauna, oraindaño egun  
dizquidatzun mesede guciaegatic. Milla  
esquer, ceren ecerezetic egun nindozun,  
eta egun, Zu emen ezagutzeco, ama-  
tzeco servitzeco eta guero beticolasun  
gucian Zurequin balean Ceruan zorione-  
co izateco. Milla esquer, ceren Zure Se-  
me Jesusen Odol preciosuarequin Ada-  
nen pecatuaren mendetik alera, eta Zu-  
re Elizaren ume bataioan egun nazun.  
Milla esquer atzenean, ceren igaro dan  
egun onetan bicitza gorde didazun.

### JAUNARI PENSAMENTU, ITZ,

#### OBRAK ETA LOA ESQUEINTZEA.

Esqueintzen dizquitzut, Jauna, gau  
onetako nere pensamenitu, itz, obrac,

eta loa. Atoz Jesus ona, bici zaite nere biotzean eta gorde nazazu etsayaren sare eta amets gaiztoetatic.

### EXAMIÑA.

*Oroi zaite emen pisca batean lembicia: Cer utseguita eguiñ dezun goicetic oraindaño. Bigarrena: queyena ausi oi dezun Mandamentu ura gorde ote dezun, goicetic asmoa artu dezun becela. Irugarrena: leyalqui eta arretarequin sayatu ote ceran orraco zure griña char nagusi, eta genio gaizto ori escuratzen, ecitzeren, hilduratzera. Esca guiozu Espiritu Santuari bere laguntza eta gracia, esaten diozula guisa onetan.*

Atoz ó Espiritu Santual Atoz bear-tsuen gurasoal Atoz doaien Emalleal Argui ezazu nere entendimentua nic nere utseguiteac ezagutzeco. Mugui ezazu nere biotza oen gañean damutzeco.

*Zaude oraiñ pisca batean zure gaur-*

*co utsegui leac eta oen sustraya gogora  
ecartzen isilic::: Eguizu asmo osoa al-  
deguileco pecatutic eta pecatuaren bidee-  
tatic, batezere araco gueyena egun oi  
dezun pecatu artatic. Arezazu asmo  
sendo bat escuratzeko eta ecitzeko orra-  
co zure griña eta genio char ori. Ar-  
ezazu zure bitartecotzat Virgiña gueiz  
Santa, zure Aingueru guardacoa, San  
José eta zure iceneco Santua::: Eguitzu  
orain Fede, Esperanza, Caridade eta  
Contriciozko actoac era onetan.*

### ACTO FEDEZCOA.

*Jaungoico, Jaquinduria eta Eguia be-  
ticoa ceranal etc. goicean becela.*

### ACTO ESPERANZAZCOA.

*Nere Jaun eta Jaungoicoa! Zure Seme  
Jesusen, etc. goicean becela.*

### ACTO CARIDADEZCOA ETA CON- TRICIOZCOA.

*Nere Salvatzalle Jesus maitagarria!  
Zu cera, etc. goicean becela.*

## MARIA CHIT SANTAREN

### LETANIA.

Kyrie, eleison.

Christe, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de cœlis, Deus, *miserere nobis.*

Fili, Redemptor mundi, Deus, *miserere nobis.*

Spiritus Sancte, Deus, *miserere nobis.*

Sancta Trinitas, unus Deus, *miserere nobis.*

**SANCTA MARIA, ora pro nobis.**

Sancta Dei Genitrix,

Sancta Virgo Virginum,

Mater Christi,

Mater divinæ gratiæ,

Mater purissima,

Mater castissima,

Mater inviolata,

Mater intemerata,

ora pro nobis.

Mater immaculata, *ora pro nobis.*  
Mater amabilis,  
Mater admirabilis,  
Mater Creatoris,  
Mater Salvatoris,  
Virgo prudentissima,  
Virgo veneranda,  
Virgo prædicanda,  
Virgo potens,  
Virgo clemens,  
Virgo fidelis,  
Speculum justitiae,  
Sedes sapientiae,  
Causa nostræ lactitiae,  
Vas spirituale,  
Vas honorabile,  
Vas insigne devotionis,  
Rosa mystica,  
Turris Davidica,  
Turris eburnea,  
Domus aurea,  
Fœderis arca,  
Janua cœli,  
Stella matutina,  
Salus infirmorum,

*ora pro nobis.*

Refugium peccatorum, *ora pro nobis.*

Consolatrix afflictorum,

Auxilium christianorum,

Regina Angelorum,

Regina Patriarcharum,

Regina Prophetarum,

Regina Apostolorum,

Regina Martyrum,

Regina Confessorum,

Regina Virginum,

Regina Sanctorum omnium,

Regina sine labe originali concepta,

Regina sacratissimi Rosarii,

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,  
*parce nobis, Domine.*

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,  
*exaudi nos, Domine.*

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,  
*miserere nobis.*

¶. Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.

¶. Ut digni efficiamur promissionibus  
Christi.

### OREMUS.

Gratiam tuam quæsumus, Domine,  
mentibus nostris infunde, ut qui, Ange-

*ora pro nobis.*

Io nuntiante, Christi Filiitui Incarnationem cognovimus, per Passionem ejus et Crucem ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

**EGUNSENTIAN, EGUERDIAN ETA  
ILLUNTZEAN, EZQUILLA ADITZEAN, AVE  
MARIAC ESATECO MODUA: EDO ANGELUS  
DOMINI ETC. EUSQUERAZ.**

Jaunaren Ainguerauc ecarri cion Virgiña Mariari Ceruco mandatua.

*Erantzuten da:* Eta Espiritu Santuren obraz eta graciaz gueratu zan aur-dun. *Agur Maria, etc.*

Ona ni Jaunaren Servitzaria.

*Erantzuten da:* Eguin bedi nigan zuc diozuna, eta diozun eran. *Agur Maria, etc.*

Eta Jaungoicoaren Semea eguin zan Guizon.

*Erantzuten da:* Eta bicitu zan guizoen artean. *Agur Maria, etc.*

## ORACIOA.

Erregutzen dizugu, Jauna, issuri de-zazula gure animetan zure gracia, Ainguerauc adiraciric zure Seme Jesusen guizon eguitea ezagulu degunoc, bera-ren Pasio eta gurutzeco eriotzagatic betico piztutze doatsuaren glorian sargaitean: Jesu-Cristogatic beragatic. Ala izan dedilla.

## ORDUAC ADITZEAN.

Agur Maria chit garbia. *Erantzuten da:* Pecatu bague sortua. *Eta guero esaten da:* Alabatua izan dedilla Ama Virgiña Pillarecoa Zaragozara elorri zan ordua. *Ave María eta Gloria.* *Eta ondoren esaten da:* Ama Virgiña Pillarecoac ordu onean sar-gaitzala, eta berac ordu gucietan lagun deguigula iñoiż ere Jaungoicoa ofenditu ez dezagun. *Erantzuten da:* Alla izan dedilla.

## MAYA BEDEINCATZECO ORACIOAC.

Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

Jauna, gure esperanza zugan dago, eta jateco bear dana zue ematen dezu: zure escua zabaldu eta gucioe bendicioz betetzen gaituzu. *Aita gurea, Ave Maria, eta Gloria. Eta ondoren devocio andiaz esazu:*

Doai gucien Emalle, gure Jauna, zure escutic gne artu eta jan bear degun gucia bedeinca ezazu Jesu-Cristo zure Semeagatic: eta beraren icenean Aitac eta Semeac eta Espiritu Santuac gucioe bedeinca gaitzeela, eta bere Gloriaco Mayera betico eraman gaitzeela. Amen Jesus.

## JANAREN ONDOREN ESQUERRAC EMATECO ORACIOAC.

Aitaren eta Semearen † eta Espiritu Santuaren icenean. Amen.

Gure Jaun eta Aita maitagarria, on  
guciaren Emallea, eta Iturburua. Milla  
esquer oraindaño eguin dizquigutzun  
mesede guciaegatic, eta ceren artu di-  
tugun janari eta edari au guretzat pres-  
tatu dituzun. Zugandic gure gañera  
etorri dan bendicio eta mesede onega-  
tic mundu guciac beti alabatu zaitzala.  
Amen Jesus. *Aita gurea, Ave Maria,*  
*Gloria eta Saleen.* Eta ondoren esazu:

Gure onguille gucias, Jauna, zure  
bendicio ugariaz paga zayezu zure Icen  
Santuagatic, eta anima fiel guciac Ce-  
rrura zu alabatzena eraman itzazu. *Aita*  
*gurea, etc., eta guero:* Anima fiel gu-  
cias Jaungoicoac betico descansua die-  
la. Amen.

Emen bildu gaituan Jaunac berac  
Ceruco Gloriara gucioe eraman gaitzala.  
Amen.

## MEZA ESATEN DUAN APAIZARI LA- GUNTZECO MODUA.

*Apaizac dio: In nomine Patris, et Filii,  
et Spiritus Sancti. Amen.*

*Introibo ad altare Dei.*

*Laguntzalleac erantzuten du: Ad Deum,  
qui lætificat juventutem meam.*

*Ap.* Judica me, Deus, et discerne  
causam meam de gente non sanc-  
ta; ab homine iniquo et doloso  
erue me.

*Lag.* Quia tu es, Deus, fortitudo mea;  
quare me repulisti, et quare tristis  
incedo, dum affligit me inimicus?

*Ap.* Emitte lucem tuam, et veritatem  
tuam; ipsa me deduxerunt, et addu-  
xerunt in montem sanctum tuum, et  
in tabernacula tua.

*Lag.* Et introibo ad altare Dei; ad  
Deum, qui lætificat juventutem  
meam.

*Ap.* Confitebor tibi in cithara, Deus,  
Deus meus: quare tristis es, ani-  
ma mea, et quare conturbas me?

*Lag.* Spera in Deo, quoniam adhuc  
confitebor illi: salutare vultus mei, et  
Deus meus.

*Ap.* Gloria Patri, et Filio, et Spiritui  
Sancto.

*Lag.* Sicut erat in principio, et nunc,  
et semper, et in sœcula sœculorum.  
Amen.

*Ap.* Introibo ad altare Dei.

*Lag.* Ad Deum, qui lætificat juventu-  
tem meam.

*Ap.* Adjutorium nostrum in nomine  
Domini.

*Lag.* Qui fecit Cœlum et terram.

*Ap.* Confiteor Deo::: et vos, fratres,  
orare pro me ad Dominum Deum  
nostrum.

*Lag.* Misereatur tui Omnipotens Deus,  
et dimissis peccatis tuis, perducat te  
ad vitam æternam.

*Ap.* Amen.

*Lag.* Confiteor Deo Omnipotenti, Beatae  
Mariæ semper Virgini, Beato Mi-  
chaeli Archangelo, Beato Joanni  
Baptistæ, Sanctis Apostolis Petro et  
Paulo, omnibus Sanctis, et tibi, Pa-  
ter, quia peccavi nimis cogitatione,  
verbo et opere: mea culpa, mea  
culpa, mea maxima culpa. Ideo pre-  
cor Beatam Mariam semper Virgi-

nem, Beatum Michaelm Archangelum, Beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

*Ap.* Misereatur vestri Omnipotens Deus, et dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam aeternam.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Indulgentiam, absolutionem, et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens et misericors Dominus.

*Lag.* Amen.

*Ap.* Deus, tu conversus vivificabis nos.

*Lag.* Et plebs tua laetabitur in te.

*Ap.* Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

*Lag.* Et salutare tuum da nobis.

*Ap.* Domine, exaudi orationem meam.

*Lag.* Et clamor meus ad te veniat.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo.

*Ap.* Kyrie, eleison.

*Lag.* Kyrie, eleison.

*Ap.* Kyrie, eleison.

*Lag.* Christe, eleison.

*Ap.* Christe, eleison.

*Lag.* Christe, eleison.

*Ap.* Kyrie, eleison.

*Lag.* Kyrie, eleison.

*Ap.* Kyrie, eleison.

*Ap.* Dominus vobiscum.

*Lag.* Et cum spiritu tuo. *Eta oracioen bucaeran erantzuten da:* Amen. *Epistolaren bucaeran.* Deo gratias.

*Ap.* Initium, *edo* Sequentia Sancti Evangelii, etc.

*Lag.* Gloria tibi, Domine. *Lenengo Evangelioaren bucaeran erantzuten da:* Laus tibi, Christe.

*Ap.* Orate, fratres.

*Lag.* Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis, ad laudem et gloriam nominis sui, ad utilitatem quoque nostram, totiusque Ecclesiae suæ sanctæ.

*Ap.* Per omnia sœcula sœculorum.

*Lag.* Amen.




- Ap.* Dominus vobiscum.  
*Lag.* Et cum spiritu tuo.  
*Ap.* Sursum corda.  
*Lag.* Habemus ad Dominum.  
*Ap.* Gratias agamus Domino Deo nostro.  
*Lag.* Dignum et justum est.  
*Ap.* *Pater noster asitzeco, dio:* Per omnia sœcula sœculorum.  
*Lag.* Amen.  
*Ap.* Et ne nos inducas in tentationem.  
*Lag.* Sed libera nos à malo.  
*Ap.* Pax Domini sit semper vobis-  
cum.  
*Lag.* Et cum spiritu tuo.  
*Ap.* Dominus vobiscum.  
*Lag.* Et cum spiritu tuo.  
*Ap.* Ite, missa est, *edo* Benedicamus  
Domino.  
*Lag.* Deo gratias. (*Ille edo Requiem-go*  
*Mezan Apaizac esaten du:*  
*Ap.* Requiescant in pace.  
*Lag.* Amen.)  
*Ap.* Dominus vobiscum.


*Lag.* Et cum spiritu tno.

*Ap.* Initium, edo Sequentia Sancti  
Evangelii, etc.

*Lag.* Gloria tibi Domine. *Azqueneco  
Evangelioaren ondoren erantzutena:  
Deo gratias.*

## BUCAERA.







A  
5